

Birformulatzaile esplikatiboak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) egungo euskara estandarrean: erabat baliokide ote?

Reformuladores explicativos (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) en el euskera estándar actual: son totalmente equivalentes?

Reformulateurs explicatifs (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) en basque standard actuel : sont-ils totalemente équivalents ?

Explanatory reformulators (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) in present-day standard Basque: are they totally equivalent?

ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2015-02-23
Noiz onartua: 2015-07-20

Euskal hiztezigileen definizioak abiapuntutzat harturik, artikulua honetan aztertzen dut zerbateraino diren baliokide eta zerbateraino diren desberdin birformulatzaile esplikatibo batzuk (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*). Azterlan honek agerian uzten duenez, hizpide ditugun birformulatzaileen artean funtsean baliokidetasuna dago haien balio pragmatiko nagusiari dagokionez, baina ez dago erabateko baliokidetasunik haien artean beste irizpide batzuk kontuan hartzen baditugu eta, beraz, ez dira trukagarriak testuinguru guztietan.

Gako-hitzak: diskurtso-markatzaileak, birformulatzaile esplikatiboak, baliokidetasuna, balio pragmatikoa, *alegia, erran nahi baita, hau da, hots*.

Teniendo en cuenta las definiciones de los lexicógrafos vascos, este artículo analiza en qué medida son equivalentes y en qué medida diferentes algunos reformuladores explicativos (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*). Este análisis deja claro, que entre los reformuladores estudiados, si nos atenemos a su valor pragmático principal si habría equivalencia; no así si tenemos en cuenta otros criterios, y por lo tanto, no son permutables en todos los contextos.

Palabras clave: marcadores discursivos, reformuladores explicativos, equivalencia, valor pragmático, *alegia, erran nahi baita, hau da, hots*.

Prenant comme point de départ les définitions données par les lexicographes basques, cet article étudie dans quelle mesure les reformulateurs explicatifs sont équivalents et dans quelle mesure ils sont différents (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*). Cette analyse montre clairement que, parmi les reformulateurs étudiés, il y a bien une équivalence si l'on s'en tient à leur principale valeur pragmatique, mais il n'y en a pas si l'on prend en compte d'autres critères, par conséquent ils ne sont pas permutables dans tous les contextes.

Mots-clés: marqueurs discursifs, reformulateurs explicatifs, équivalence, valeur pragmatique, *alegia, erran nahi baita, hau da, hots*.

Taking the definitions of Basque lexicographers as a starting point, how far a number of explanatory reformulators (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) are equivalent and how far different is examined. The analysis makes clear that as far as their main pragmatic value is concerned the reformulators studied are equivalent; this is not the case, however, if other criteria are applied. Hence, they are not exchangeable in all contexts.

Keywords: discourse markers, explanatory reformulators, equivalence, pragmatic value, *alegia, erran nahi baita, hau da, hots*.

0. Sarrera¹

Diskurtso-markatzaileak (DM)² definitzea ez da batere eginkizun erraza; eta are zailagoa da haien artean izan daitezkeen kidetasunak eta desberdintasunak agerian uztea. Artikulu honetan, bada, euskal hiztegi-gileen definizioak oinarri harturik, aztertzen dut zenbateraino diren baliokide eta zenbateraino diren desberdin birformulatuzaile esplikati-boak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*).

Teorian, birformulatuzaile baten definizioak ondo bereizi behar luke delako partikula gainerakoetatik, haren bereizgarriak agerian utzita. Inguruko hizkuntzetan ikerketa asko egin dira azken hamarkadetan diskurtso-markatzaileei (DM) buruz (Vázquez, 2011) eta ikerketa horien ondotik markatzaileen hiztegi espezializatuak ere sortu dira (Fuentes, 2009; Briz *et alii*, 2008). Euskaraz, berriz, ez dago batere garatuta ikerlerro hori, eta kontuan izanda DMak hitz bereziak direla –munduari ez, baizik eta diskurtsoari erreferentzia egitekoak– eta jarraibide pragmatikoak ematea dela haien eginkizuna –hots, solaskideari diskurtsoaren inguruko inferentzietan laguntzea–, interesgarria iruditu zitzaidan aztertzea nola egin dioten aurre euskal hiztegi-DMak definitzeko eginkizun zailari.

Esparrua mugatu beharra zegoen ezinbestean, eta birformulatuzaile esplikati-boak (*alegia, erran nahi baita, hots, hau da...*) hartu ditut aztergai. Berezi, halako hitzen definizioaren erroka –haien arteko kidetasunak eta desberdintasunak agerian uzteko erroka– nuen ikusmiran, eta horregatik hautatu ditut euskarazko hiztegi elebakarrak azterlan honetarako: Euskal Hiztegia (EH)³,

¹ Ikerlan hau *Gogo elebiduna/La mente Bilingüe* ikerketa-talde egonkortuaren (IT665-13) emaitzatariko bat da. Emaitza hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez.

² Hemendik aurrera, laburtzearen, DM laburdura erabiliko dut *diskurtso-markatzaile* deitura luzearen ordez.

³ Internet (*Hautu-lanerako Euskal Hiztegia*): <http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/sarasola/sarasola.apl>

Hiztegi Batua⁴ (HB) eta Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH). Ikuspegia osatze-ko, bi hiztegi elebidun hauek ere aztertu ditut: Orotariko Euskal Hiztegia⁵ (OEH) eta interneteko Elhuyar euskara-espainiera hiztegia.⁶

Teorian, DM baten definizioak ondo bereizi behar luke delako markatzailea gainerakoetatik, ondo hautaturiko deskriptore eta bereizgarriak dirrela medio (Portolés, 2007; Seco, 1978). Euskal hiztegiek, berriz, elkarren baliokidetzat jotzen dituzte hizpide ditugun lau birformulatzailerik esprikatiboak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*).

Sarri askotan esan izan da nekez aurkitzen dela hizkuntza batean erabateko sinonimiarik. Eta, hain zuzen ere, ildo horretan kokatzen da gure atzerlana. Alegia, gure lanaren helburu nagusia da aztertea zenbateraino diren baliokide euskarazko birformulatzailerik esprikatibo nagusiak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) eta agerian uztea, kidetasun pragmatikoak gorabehera, ez dagoela erabateko baliokidetasunik birformulatzailerik horien artean.

Lehen atalean, birformulatzailerik esprikatiboek buruz euskal hiztegiatan ematen diren argibideak jaso ditut modu deskriptiboan. Bigarren atalean, birformulatzailerik balizko baliokidetasuna jarri dut auzitan irizpide batzuen argitan: kategoria, euskalki-banaketa, mugikortasuna, joskera, beregaintasun diskurtsiboa, balio pragmatikoak eta informazio-egitura. Eta, azkenik, ondorio batzuk formulatu ditut azken atalean.

Metodologiari dagokionez, EUDIMA ikerketa-proiektuko corpus zabalaz baliatu naiz testuak eta datuak aztertzeko. Egungo euskara zaindua islatu nahi du EUDIMA corpusak⁷ eta honela osatuta dago:

⁴ Internet: <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegitatua/>

⁵ Internet: <http://www.euskaltzaindia.net/oea/>

⁶ Internet: http://hiztegiak.elhuyar.org/eu_es/

⁷ Guztira 62,6 milioi testu-hitz ditu corpusak eta halako oreka bat lortu da testu itzulien eta jatorrizkoen artean. Testu mota batzuk biltzen ditu (akademikoak, lege-testuak, prentsa, saiakera) eta, bereziki, ahozko hizkuntzara hurbiltzen diren bi azpicorpus ditu: alde batetik, Goenkale, zeinak hein batean lagunarteko erregistroa imitatzen baitu; eta, bestetik, ETBko dokumentalen corpusa, zeinak, entzunak izateko testuen bidez, erregistro zaindua islatzen baitu.

1. taula. EUDIMA corpusaren osaera

ZIO corpusa ⁸	1,0 milioi testu-hitz
EHUko eskuliburu itzuliak	5,5 milioi testu-hitz
Zuzenbidea / lege-testuak	4,1 milioi testu-hitz
Zuzenbidea / testu akademikoak	2,5 milioi testu-hitz
Pentsamenduaren Klasikoak ⁹	10,7 milioi testu-hitz
Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD): liburuak ¹⁰	10,2 milioi testu-hitz
Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD): prentsa ¹¹	10,5 milioi testu-hitz
Zientzia eta Teknologiaren Corpusa (ZT) ¹²	6,6 milioi testu-hitz
ETBko dokumentalak	0,5 milioi testu-hitz
Goenkale corpusa ¹³	11,0 milioi testu-hitz
GUZTIRA	62,6 milioi testu-hitz

Jatorrizkoak	35,7 milioi testu-hitz
Itzulpenak	26,9 milioi testu-hitz
GUZTIRA	62,6 milioi testu-hitz

1. Birformulatzaile esplikatiiboak euskal hiztegietan: alegia, erran nahi baita, hau da, hots

Atal honetan halako xehetasun batez ikusiko dugu nola jaso eta nola landu diren euskal hiztegietan diskurtso-markatzaile jakin batzuk: birformulatzaile esplikatiiboak. Eta, multzo horren barruan, bereziki, euskal hiztegie-

⁸ <http://www.ehu.es/ehg/zio/>

⁹ <http://ehu.es/ehg/pkc/>

¹⁰ <http://ehu.es/ehg/epd/>

¹¹ <http://ehu.es/ehg/epd/>

¹² Zientzia eta Teknologiaren Corpusa: <http://www.ztcorpusa.net/cgi-bin/kontsulta.py>

¹³ <http://ehu.es/ehg/goenkale/>

tan jasota dauden markatzaile nagusi hauek izango ditugu aztergai: *alegia, erran nahi baita, hau da eta hots*.

1.1. Alegia

Hona hemen euskal hiztegi elebkarretako definizioak.

Euskal Hiztegia (EH):

- (1) Alegia 2. (*1745, 1872) Aurreko esaldiaren esangura berdintzua duen, edo haren esplikagarri den esaldi baten bukaeran ezartzen den hitza, «hau da»-ren baliokidea. Hemengo ipuin eta bertsoek iturri bera dute; Graziano Gesaltzako aitona, **alegia**. || Aurrekoa jasoaz, bigarren esaldiaren hasieran ere ezartzen da. «Eskopeta ori koipeka erria dago» esan zion, **alegia** behin ere ez ziola koiperik ematen. Zera adierazi dio, **alegia** ez dadila hemendik aurrera bere andregaiarekin joan.

Hiztegi Batua (HB):

- (2) **alegia** 1 'hots, hau da' 2 'ipuina'

Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH):

- (3) Alegia 1 lok. Zerbait azaldu ondoren, informazioa zehazteko, azaldutakoa argitzeko edo osatzeko erabiltzen den hitza, *hau da*-ren baliokidea. *Hemengo ipuin eta bertsoek iturri bera dute; Graziano Gesaltzako aitona, alegia. Eskutitz sail bat zen, karta sail bat, alegia. Gauza bat da arrantza, astoarena, alegia eta bestea arrantza, itsaso-erretako arrainena. Argiaren zalea da, alegia ez duela beste zuhaitzen itzalik nahi.*
- (4) 2. lok. (Azaldu nahi denari sarrera emanez). *Zera adierazi dio, alegia, ez dadila hemendik aurrera bere andregaiarekin joan. Esan dit, alegia, hauek gaztetxoak direla. Esan nahi dut, alegia, aukera izan banu bide horretatik joko nuela.*

Erabilitako definizio-moldeari bagagozkio, azpimarratzekoa da bai EHk, bai EusHk estrategia bertsua erabili dutela. Alegia, definitzeko bi modu

hauek uztarturik osatu dute definizioa: definizio funtzionala («... ezartzen/erabiltzen den hitza») eta metalinguistikoa¹⁴ (baliokidetza bidezkoa: «*hau daren baliokidea*»). Hiztegi Batuak, berriz, gehienbat ortografia-hiztegia izanik, baliokidetza besterik ez du erabili (*alegia* 1: *hots, hau da*).

Hona hemen OEhk eta Elhuyarrek ematen dituzten argibideak.¹⁵

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH): alegia

alegia (L, BN, Sal, S; SP, Urt II 474, Lar, VocBN, Dv, H),
alea (SP), **ale**. Ref.: A (*alea*); Lrq /alégia/.

(...)

- (5) 3. (G-goi-bet). Ref.: JMB At (*alegie*); Zt. Es decir, o sea, a saber. (Colocado tanto encabezando la oración explicativa como al final de ésta). «-Eskopeta ori koipiak erria dagoesan ziyon, **alegiya** beñere etziola koiperik ematen» Zt. (...)
- (6) ■ (Empleado como anafórico, para introducir algo que se va a decir a continuación). v. 1 **zera** (2). *Orra ba, nik jakin nai nukena da... *alegia*... *zera*... Erri ontan bazkaitara norbait eramán nai danean, nola esaten zaio? Muj PAm 41. -Ta, zer esan dizu? -Esan dit, *alegia*, *abek gaztetxoak*, *txikitxoak dirala oraindik eta urruti aietara iritsi gabeak dirala*. Ib. 44. (...)

Elhuyar:

- (7) Alegia. 3 lok. (Zerbait azaldu ondoren, informazioa zehazteko, azaldutakoa argitu edo osatzeko erabiltzen da) «es decir, esto es»

Ikus daitekeenez, beraz, kategoria gramatikalari dagokionez, EHk eta HBk ez dute inolako zehaztasunik ematen; ezta OEhk ere. Eta EusHk eta Elhuyarrek lokailutzat jotzen dute.

¹⁴ Beste zeinu bat -hitza baliokide bat- erabiliz definitzen da definigaia (Rey-Debove, 1971; Sanmartín, 2010).

¹⁵ Harrigarria bada ere, Azkueren hiztegian ez da ematen *alegia* birformulatuzailearen berri. Gauza bera gertatzen da Pierre Lhanderen hiztegian.

Birformulatzailearen balioei dagokienez, hiztegi guztiak bat datoz birformulatzaile esplikatibo gisa betetzen duen funtzio nagusia jasotzeko. Azpimarratzekoa da, bestalde, bai EusHk bai OEhk jasotzen duten balio berezia: hots, azaldu nahi denari sarrera emateko funtzioa.

1.2. *Erran nahi baita*

Nabarmentzekoa da euskal hiztegieta ez zaiola aparteko sarrerarik eskaintzen *erran nahi baita* birformulatzaileari. Hala, hiztegi elebarrak (EHk, HBk eta EusHk) *erran* sarreran jasotzen dute, esapide gisa, eta *hau da* eta *hots* birformulatzaile esplikatiboekiko baliokidetza ezartzen diote. OEhk eta Elhuyarrek, berriz, *erran*-en azpisarrera gisa jasotzen dute (*erran nahi da/baita*) eta *es decir* ordaina esleitzen. Oro har, beraz, baliokidetzaz baliatzen dira birformulatzailea definitzeko, eta ez definizio funtzional batez.

Euskal Hiztegia (EH):

- (8) 1 *erran*, *erraten* (1627) edo *erraiten* (1545). *du ad.* (1545) *Sort.* (Laguntzailerik gabe ere jokutzen da: *dio*; *zioen*; *diotso*; *ziotson*; *banerra*, *balerra*; *lerrake*; *berra*, *errazu*, *berrate*). *Esan.* *Erran nahi baita*: *hau da*, *hots*. *Erran gabe doa*: *esan beharrik ez dago*. *Hazi ona behar dela*, *hori erran gabe doa*; *ez erein dudako hazirik*.

Hiztegi Batua (HB):

- (9) *erran* 1, *erraten*. *du ad.*: *erran gabe doa* ('ez dago esan beharrik'); *Jainkoaren erresuma*, *erran nahi da*, *Eliza*; *hilko naiz*, *erran nahi da gauza guztiez gabetua izango naizela*; *orain*, *erran nahi baita*, 1853an.

Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH):

- (10) *erran*, *erran*, *erraten* *du ad.* *Esan.* *Goiz etortzeko erran diot*. *Erran ohi da gauza ona, galdu arte, ez dela ezagutzen.* // *Hazi ona behar dela*, *hori*, *erran gabe doa*; *ez erein dudako hazirik*. *Erran nahi baita*: *hau da*, *hots*.

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH):

- (11) ERRAN NAHI DA (L ap. A; Ht VocGr, Dv), BAITA. Es decir. *Tr.* De uso casi general en la tradición septentrional (pero no en Axular); no lo documentamos al Sur. Con *baita*, *beita*, es hasta finales del s. XIX, bastante menos frecuente, aunque se encuentra ya, alternando con *da*, en Leizarraga y Tartas (*Onsa* 144); en el s. XVIII lo hallamos en Maister y Lopez. Desde mediados del s. XIX su uso va aumentando, extendiéndose a autores labortanos, y ya desde finales de dicho siglo predomina claramente sobre *erran nahi da*; en el s. XX, sólo encontramos ej. de este último en Oxobi (177) y *CatJauf* (115).

Elhuyar:

- (12) [*erran* aditzaren azpisarrera] *erran nahi da/baita*: es decir

Azkueren hiztegian (1906) ez dago jasoa *erran nahi baita* birformulatuzailea, eta Lhanderenean honako argibide soil hau baino ez dator: «(Hb.) c'est-à-dire».

1.3. *Hau da*

Euskal Hiztegian (EH) definizio funtzionala eta baliokidetzazkoa («ik. *hots*, *alegia*») uztartzen dira *hau da* definitzeko. Euskaltzaindiaren Hiztegiak (EusH), berriz, definizio funtzional hutsa ematen du, baliokidetzara edo sinonimiara jo gabe.

Euskal Hiztegia (EH):

- (13) [*Hau* sarreran] Aurrean esan dena argiagotzeko erabiltzen den esapidea. Ik. **hots B 2**; **alegia 2**. *Eta leku hari deitu zion «Faniel», hau da, Jainkoaren ikuskera. Otsailaren hogeian, hau da, duela hamabi egun. Estatuaren eskuetan, hau da, Madriloen eskuetan gelditu zitzaigun gehienbat.*

Hiztegi Batua (HB):

- (14) **hau**: *hau guztia*; *bide honetan guztian*; *hauekin guztiekin*; *hau guztiau*.

hau da

Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH)

- (15) **hau da** Aurrean esan dena argiagotu nahi dela adierazteko erabiltzen den esapidea. *Eta leku hari deitu zion «Fanuel», hau da, Jainkoaren ikuskera. Otsailaren hogeian, hau da, due-la hamabi egun. Irakaskuntza estatuaren eskuetan, hau da, Madrilloen eskuetan gelditu zitzaigun gehienbat.*

Hiztegi elebidunetan ordain hauek esleitzen dizkiote *hau da* esapideari:¹⁶

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) (ikus *hau da*):¹⁷

- (16) HAU DA (Ht VocGr 337). Esto es, es decir, a saber. v. ERRAN NAHI DA, **alegia (3)**, **hots**. Tr. Documentado en textos meridionales desde el s. XVII, al Norte sólo lo hallamos en *INav* y algún autor moderno como Mirande.

Elhuyar:

- (17) esto es, es decir; o sea

Irakaskuntza estatuaren eskuetan, hau da, Madrillo politika-rien eskuetan dago: la enseñanza está en manos del estado, es decir, en manos de los políticos de Madrid.

1.4. **Hots**

Partikula hau definitzean ere definizio funtzionala («...argiagotzeko hitza»; «... argiagotu nahi dela adierazteko erabiltzen den hitza») eta baliokidetzazkoa («*hau da*-ren baliokidea») uztartzen dituzte EHk eta EusHk. Harelere, hiztegiak ez dira ados jarri kategoriatan gramatikala zehazterakoan: EHk eta EusHk ez dute kategoriari buruzko inolako zehaztasunik ematen; OEHk interjekziozat jotzen du; eta, Elhuyarrek, azkenik, lokailutzat.

¹⁶ Azpimarratzekoa gaztelaniako ordainak emateko orduan ez datozela guztiz bat OEH eta Elhuyar. Izan ere, Elhuyarrek *o sea* ordaina ere esleitzen dio *hau da* birformulatzailerari.

¹⁷ Azkueren hiztegian (*Diccionario vasco-español-francés*) ez dago jasoa *hau da* birformulatzailerari.

Euskal Hiztegia (EH):

- (18) 2. Aurrean esan dena argiagotzeko hitza, «hau da»-ren baliokidea. Ez *dugu arras zuzen jokatu* «politikari» dagokionez. *Egia zor du kritikoak, hots, gogoan bata eta ahoan bestea duela ez ibiltzea.*

Hiztegi Batua (HB):

- (19) **hots 2** 'hau da'

Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH):

- (20) **hots (...)** 6 Aurrean esan dena argiagotu nahi dela adierazteko erabiltzen den hitza, *hau da*-ren baliokidea. Ik. **alegia**. *Galian, Hispanian, Italian, Britanian, hots, Europaren sartaldeguztian. Batasunaren aldekoek –hots, guk– ez dugu arras zuzen jokatu* «politikari» dagokionez. *Egia zor du kritikoak, hots, gogoan bata eta ahoan bestea duela ez ibiltzea.*

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) (ikus hots)¹⁸

II (Interj.).

❖ 1. (gral.; SP, Lar, Aq (R), Arch Gram 160, Gèze, Dv (L), H). Ref.: A; A Morf 729; Lrq. «Ta, interjección» Lar. «Expresión para que anden los bueyes» Aq 756. «Allons» Arch Gram y Gèze. «¡Ea!, interjección de incitación» A. ❖ Tr. Más frecuente al Norte hasta el s. XX; a partir de aprox. 1930 su uso crece entre los autores guipuzcoanos e incluso se encuentra en algún vizcaíno como Otxolua. (...)

- (21) 3. Es decir, esto es. (El carácter de interjección no es, ni mucho menos, general en todos los ejs.).

Elhuyar:

- (22) 7 lok. es decir, esto es; o sea
Batasunaren aldekoek, hots, guk, ez dugu zuzen jokatu: los partidarios de la unificación, es decir, nosotros, no hemos actuado correctamente.

¹⁸ Azkuek ez du jasotzen bere hiztegian (1906) birformulatzailer-balioa *hots* hitzaren adieren artean.

2. Birformulatzailerak esplikatiboak euskal hiztegien arabera: erabat baliokide ote?

Aurreko ataleko definizioetatik ondoriozta liteke hizpide ditugun lau birformulatzailerak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) elkarren baliokide eta erdal birformulatzailerak batzuen baliokide direla. Eta atal honetan, hain zuzen ere, balizko baliokidetza horiek izango ditugu aztergai. Dena dela, azterketa horri ekin baino lehen, euskal hiztegiek DMak azaltzeko erabili dituzten estrategiak eta definizio-moldeak arakatuko ditugu.

Lan honetan Martín-ek eta Portolés-ek aspaldi (1999) eman zuten harako definizio hura¹⁹ hartuko dugu abiapuntutzat. Definizio hartan DMen bi ezaugarri bereizgarriak geratzen dira azpimarratuta (Martín, 2011): alde batetik, DMek duten jarraibide-, prozedura- edo prozesatze-esanahia²⁰ azpimarratzen da (hots, hitzunen eta hartzailearen arteko elkarlana eta enuntziatuen interpretazioa gidatu behar duen lankidetzat); beste alde batetik, perpausaren esparruan inolako funtzio sintaktikorik ez betetzea da diskurtso-markatzaileen bigarren ezaugarri funtsezkoa. Ez da, beraz, gramatika-kategoria berri bat, ezpada sail funtzional²¹, diskurtsibo edo pragmatiko «berri» bat (Loureda & Acín, 2010; Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española 2010; Martí, 2011).

Beraz, kontuan hartzen badugu DMen jarraibidezko esanahia, begien bistan geratzen da hiztegitzako ohiko definizio kontzeptualek ez dutela

¹⁹ «Los marcadores del discurso son unidades lingüísticas invariables, no ejercen una función lingüística en el marco de la predicación oracional –son, pues, elementos marginales– y poseen un contenido coincidente en el discurso: el de guiar, de acuerdo con sus distintas propiedades morfosintácticas, semánticas y pragmáticas, las inferencias que se realizan en la comunicación.» (Martín & Portolés, 1999: 4057).

²⁰ «El significado procedimental, también llamado de procesamiento, es la información sobre cómo procesar el significado conceptual, el cual se define a su vez como la información léxica sobre el contenido proposicional de los enunciados» (Loureda & Acín, 2010: 35).

²¹ Askotariko gramatika-kategorietatik edo eraikuntza konplexuetatik eratorritakoak dira DMak, eta horregatik diogu sail funtzional edo pragmatiko berri bat osatzen dutela (hots, ez dira inola ere gramatika-kategoria berri bat).

balio markatzaileak definitzeko: *alegia*, hiztegi orokor batean, *alegia*, *hots*, *hau da* eta halako DMak ezin dira definitu, hitz arruntak (*lehoi*, *haur*, *gurdi...*) definitzen diren modu berean; *hots*, gainerako gramatika-hitzen kasuan bezalatsu, definizio kontzeptuala alboratzera eta bestelako prozedura bat erabiltzera behartuta dago hiztegiilea (Martín, 2010). DMen kasuan, kategoria diskurtsibo edo pragmatiko bat izanik, definizio funtzional edo esplikatiboa (Porto, 2002) erabiltzea da irtenbide egokiena.²² Izan ere, halakoetan erabileran oinarritu behar da ezinbestean definizioa, hitzaren esanahia, funtsean, beraren erabilera baita. Ondorioz, azalpeneko definizio funtzionaletara jotzea da DMak definitzeko estrategiarik egokiena. Zentzu hertsian, halako «definizioek» gehiago dute deskripziotik definitziorik baino; *hots*, azalpen dira, definizio baino areago (Seco, 1978; Llopis, 2006).

Euskal hiztegiatarra etorrira, estrategia eta definizio-molde hauek sumatzen ditugu gure lau birformulatuzaileen definizioetan:

(23)

Alegia(EH) definizio funtzionala + *hau daren* baliokidea(EusH, *alegia 1 # alegia 2*) definizio funtzionala + *hau daren* baliokidea(HB) *hots*, *hau da*(OEH) *es decir*, *o sea*, *a saber* + def. funtzionala [*alegia «2»*]: como anafórico... v. *zera*(Elhuyar) *es decir*, *esto es* + def. funtzionala*Erran nahi baita*(EH) [*erran*-en azpisarrera gisa]: *hau da*, *hots*(HB) *erran* sarreran: adibideak besterik ez(EusH) [*erran*-en, «ñabardura» gisa | |]: *hau da*, *hots*(OEH) *es decir* + tradizioa(Elhuyar) [*erran*-en azpisarrera gisa, lokuzioa]: *es decir*

²² Lara-k (2003) *erabilerazkoa* («de uso») deritzo definizio-molde horri, eta Sanmartin-ek dio (2010) zeinuaren metahizkuntzan oinarritutako definizioak direla halakoak (Rey-Debove, 1971; Llopis, 2006).

Hau da(EH) [*hau sarreran*] Definizio funtzionala + Ik. *hots, alegia*(HB) [*hau sarreraren azpisarrera, inongo azalpenik gabe*]

(EusH) Definizio funtzionala

(OEH) *esto es, es decir, a saber. Ver erran nahi da, alegia, hots*(Elhuyar) *esto es, es decir; o sea**Hots*(EH) definizio funtzionala + *hau daren* baliokidea(HB) *hau da*(EusH) definizio funtzionala + *hau daren* baliokidea(OEH) «interj.» *es decir, esto es*(Elhuyar) *es decir, esto es; o sea*

Beraz, xehetasunak alde batera utzita, definizio-molde hauek erabili dira euskal hiztegieta, aztergai ditugun DMak definitzeko edo azaltzeko:

(24)

- i. *alegia* [funtzionala + metalinguistikoa (baliokidetzazkoa): *hau da*]
- ii. *erran nahi baita* [metalinguistikoa (baliokidetzazkoa): *hau da, hots*]
- iii. *hau da*
 - a. [EH (13), funtzionala + metalinguistikoa (baliokidetzazkoa): «ik. *hots, alegia*»]
 - b. [EusH (15), funtzionala]
- iv. *hots* [funtzionala + metalinguistikoa (baliokidetzazkoa): *hau da*]

Nire iritziz, oro har, estrategia egokiak hautatu dituzte hiztegiileek diskurtso-markatzaileak definitzeko: *hots*, definizio funtzionala (azalpenzkoa) eta metalinguistikoa (baliokidetzazkoa) uztartu dituzte gehienetan (*alegia, hots, hau da*); eta esapide markatuaren kasuan (*erran nahi baita*)²³

²³ Eztabaidagarria izan daiteke, alde horretatik, zenbateraino den *erran nahi baita* markatuagoa, *hots* baino.

erabilera zabalagoko esapide baliokideen bitartez (*hau da, hots*) azaldu da definigaia.²⁴

Coragoko (23)an eta (24)an ikusi dugunez, aztergai ditugun birformulatzailer «definizioetan» baliokidetzako erlazioa ezartzen da definigiaren eta definitzaileraren artean: «-en baliokidea da» predikatua erabiliz (*alegia, hots sarrerak*); baliokidetzaren bidez (*erran nahi baita: hau da, hots*); edo «ik.» bidalketa-laburduraren bidez (*hau da: Ik. hots, alegia*).

Dena dela, *hau da* birformulatzailerarekiko baliokidetzaren bidez azaltzen dira beste hiru birformulatzailerak, eta, beraz, hortik ondoriozta lezake irakurleak guztiz baliokideak direla laurak.

Bestalde, hiztegi elebidunetan ezartzen diren baliokidetzaren batzuk ere zalantzakoak dira, edo, gutxienez, partzialak. Izan ere, informazio-egituraren parametroa aintzat hartzen badugu, *hau da*, esate baterako, ez da *esto es* birformulatzaileraren baliokide petoa, ezta *a saber* birformulatzailerarena ere (infra 2.7.).

Hizkuntza-hiztegi orokor batean, diskurtso-markatzaile bakoitzaren funtzio edo balio nagusiak azaldu ohi zaizkio erabiltzaile espezializatu gabeari, xehetasunetan eta teknizismoetan sartu gabe, eta, alde horretatik uste dut euskal hiztegi-tako definizioak (1-22) egokiak direla, oro har. Dena dela, sakonago aztertuz gero, zalantzarik da goiko lau birformulatzaileraren baliokidetasuna. Izan ere, baliokideak dira laurak balio semantiko-pragmatiko nagusiarri –birformulazio esprikatiboa– bagagozkio, baina desberdinak dira beste parametro batzuk kontuan hartzen baditugu: euskalkia; posizioa eta mugikortasuna; joskera; beregaintasun diskurtsiboa; balio pragmatiko eratorriak... Alegia, ez dirudi lau birformulatzailerak testuinguru guztietan trugarriak direnik. Gauza bera esan daiteke hiztegi elebidunetako baliokidetzaren batzuei buruz: informazio-egiturari erreparatu gero, esate baterako, *hau*

²⁴ Nire ustez, ordea, hobe da beti azalpen funtzional batez hornitzea definizioa; besterik ez bada, erabiltzaile sarrera batetik bestera ibiltzera ez behartzeko. Ondo saihestu da definizio morfosemantikoen arriskua (adibidez: *erran nahi baita* birformulatzaileraren «esan nahi da» hitzen bidez azaltzea, ik. Sanmartín, 2010); eta *hau da* definitzean, definizio funtzionalari esker gaudituz da definizio zirkularra (adibidez: *alegia, erran nahi baita, hots: hau da; hau da: hots, alegia*).

da ez da *esto es* esapidearen baliokide erabatekoa. Ikus ditzagun, bada, zertan diren ñabardura horietako batzuk.

2.1. Gramatika-kategoria

Hiztegi gile eta lexikografo guztiek jotzen dute beharrezkotzat kategoriari buruzko informazioa ematea sarrera guztietan, eta are beharrezkoagozat jotzen da informazio hori gramatika-hitzen kasuan eta, zer esanik ez, DMen kasuan (Llopis, 2006).

Euskal hiztegi tan lau birformulatuzaileak, oro har, baliokidetzat jotzen diren arren, ez da islatzen beti baliokidetasun hori gramatika-kategoria zehazteko orduan. Izan ere, oro har birformulatuzaileok lokailuen multzoan sailkatzen badituzte ere, kategoriaren aldetik hutsune nabarmenak daude hiztegi tan honako birformulatuzaile hauen kasuan: *alegia* –EH (1), HB (2), OEH (5, 6)–; *erran nahi baita* (ez da zehazten inongo hiztegi tan esapidearen kategoria); *hau da* –EH (13), HB (14), EusH (15), OEH (16), Elhuyar (17)–; *hots* –EH (18), HB (19), EusH (20)–. Bestalde, OEHk, zalantza askorekin bada ere,²⁵ interjekzioztat jotzen du *hots* birformulatuzailea.

Ez da harrigarria euskal hiztegi tan horrelako zalantza eta hutsuneak agertzea. Izan ere, diskurtso-markatuzaileena ez da ohiko gramatika-kategoria bat, baizik eta kategoria funtzional edo pragmatiko bat, estatus berezi eta eztabaidatua duena (Martí, 2011; Alberdi, 2014). Gainera, euskaraz ez daude oso garatuta diskurtso-markatuzaileei buruzko ikerketak: Euskaltzaindiak (1990) markatuzaile batzuk (lokailuak) baino ez ditu ikertuak, eta, beraz, azterkizun daude markatuzaile asko eta asko.

Beraz, nolabaiteko koherentzia falta nabari da euskal hiztegi tan, aztergai ditugun lau birformulatuzaileei dagokienez: alde batetik, baliokide direla esaten digute; baina, beste alde batetik, zalantza handiak ageri dituzte haietako batzuen kategoria finkatzeko orduan eta ez dituzte denak kategoria berean sailkatzen.

²⁵ «El carácter de interjección no es, ni mucho menos, general en todos los ejs.»

2.2. Jatorrizko euskalki-banaketa eta egungo joerak

EUDIMA corpuseko datuen arabera, hauek dira birformulatuzaile esplikatio nagusien erabilera-maiztasunak:

Birformulatuzailea	Agerpen kopurua	%o (100.000ko)
<i>hau da</i> ²⁶	25595	40,8
<i>alegia</i> ²⁷	19544	31,2
<i>hots</i> ²⁸	14662	23,4
<i>erran nahi baita</i> ²⁹	866	1,3

Euskalkiaren aldetik honelako banaketa ageri zaigu Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) arabera (Alberdi, 2014): jatorriz eta tradizioz ipar-ekialdekoak dira *erran nahi baita* eta *hots*; hegoaldekoa da *hau da*; eta erdialdeko euskalkietakoa, *alegia*.

Azpimarragarria da, alde horretatik, egungo euskara estandarrean birformulatuzaile batzuek eta besteek izan duten «zorte» desberdina. Espero izatekoa zenez –Hegoaldeko euskara, kopuruz eta hedaduraz behintzat, hegemonikoa baita–, egungo estandarrean erabat zabaldu da jatorriz hegoaldekoa den *hau da* birformulatuzailea. Joera horren erakusgarri da hiztegiileen joera: *hau da*-rekiko baliokidetzara jotzen dute, hain zuzen ere, gainerako birformulatuzaile esplikatioak definitzeko (*alegia*, *erran nahi baita*, *hots*). Alegia, ematen du hiztegiileen *hau da* jotzen dutela birformulatuzaile esplikatio prototipikotzat edo markatu gabetzat.

Antzeko harrera ona egin zaio egungo euskara estandarrean jatorriz Iparraldekoa den *hots* birformulatuzaileari. Hegoaldeko egungo testuetan, bereziki erregistro zainduan, barra-barra erabiltzen da *hots*, aurrean esan dena

²⁶ Etenaldi biren artean dauden *hau da* guztiak hartu ditut kontuan.

²⁷ Datu gordinak, *alegia* izenak barne.

²⁸ Etenaldi biren artean dauden *hots* guztiak hartu ditut kontuan, izenak bereizi gabe.

²⁹ *Erran nahi baita* / *Esan nahi baita* aldaerak hartu ditut kontuan; ez, ordea, birformulatuzaile zeregina betetzen duten *erran/esan nahi da* aldaeraren adibideak.

argiagotu nahi dela adierazteko; hau da, atal birformulatzaileraren hitz iragarle gisa.

Alegia birformulatzailerak ere antzeko zabalkundea edo «arrakasta» izan du egungo euskara estandarrean. Jatorriz erdialdeko euskalkietakoa bada ere, gaur egun ezin da jo euskalki jakin baten edo batzuen hitz bereizgarritzat.

Nolabait esateko, euskara estandarren hiztegi-ondare komunekoa baliabide gisa bereganatu ditu hiztunak, maila zainduan behintzat, hiru birformulatzailerak: *hau da*, *hots* eta *alegia*.

Oso bestelakoa izan da, ostera, Iparraldeko tradizioko *erran nahi baita* birformulatzailerak lortu duen hedapena (Alberdi, 2011). Egia da pixka bat hedatu dela egungo euskara estandarrean, baina oraindik ere markatua da euskalkiaren aldetik: beren testuari ipar-ekialdeko mintzairaren kolorea eman nahi dioten idazleek erabiltzen dute batik bat. Nabarmentzekoa da, orobat, *esan nahi baita* aldaerak izan duen oihartzun guztiz apala.

Gaur egun, oso bakan erabiltzen da Hegoaldeko euskara batuan *erran/esan nahi baita* birformulatzailerak: aldaera biak kontuan izanda (*erran/esan nahi baita* eta *erran/esan nahi da*³⁰), 1.000 agerpen baino gutxiago ditugu EUDIMA corpusean (ehun milako 1,3). Datu adierazgarriak dira, baliokidetzat jo diren beste birformulatzailerak esplikatibo batzuek duten maiztasun altuarekin alderatuz gero: *alegia* birformulatzailerak, esaterako, 19.000 agerpen inguru³¹ ditu guztira gure corpusean; eta *hots* birformulatzailerak, 15.000 agerpen inguru.

Gure datuen arabera, *erran/esan nahi baita* ez da ia batere erabili ZIO corpusean, ez EHUko eskuliburu itzulietan, zuzenbideko testuetan edo

³⁰ OEHk azpimarratzen duen joerari eusten zaio gaur egungo euskaran ere: *alegia*, aldaera lexikalizatu flexiodun edo aurrizkiduna (*bait-*) da nagusi birformulatzailerak gisa (*erran/esan nahi baita*: 866 agerpen; *erran/esan nahi da*: 219 agerpen).

³¹ Egia esan, gutxi gorabeherakoak dira *alegia* eta *hots* birformulatzailerak maiztasunari buruz eman ditugun datuak. Izan ere, gure corpusean ez dago modu automatikoan jakiterik *alegia* guztien artetik zein diren birformulatzailerak eta zein izen; eta orobat gertatzen da *hots* hitzarekin. Gure datuak hurbilpen bat baino ez dira: ondoren eten bat (koma, bi puntu, puntu eta koma...) duten *alegia* eta *hots* guztiak hartu ditugu birformulatzailerat.

Zientzia eta Teknologia corpusean; ezta ETBko dokumentaletan eta Goenkale corpusean ere. Prentsan ere, batez ere *Herria* astekarian agertzen da eta handik kanpo oso bakan. Iparraldean eta ipar-ekialdeko idazleen testuetan, ordea, erruz erabiltzen da: testu mota guztietan; lagunarteko erregistroan zein maila zainduan; hizkuntza idatzian zein ahozkoan.

Beraz, egungo euskara estandarren finkapenari bagagozkio, azpimarratzekoa da ipar-ekialdeko *hots* eta *erran nahi baita* birformulatzailleek izan duten bilakaera desberdina: birformulatzaille gisa erraz eta erruz hedatu da euskara estandarrean *hots* partikula; *erran/esan nahi baita* esapidea, aldiz, ipar-ekialdeko kolorea duten testuetan baino ez da erabiltzen gaurko euskaran.

2.3. Posizioa eta mugikortasuna

Posizioari bagagozkio, ez dute mugikortasun berbera lau birformulatzailleok. Eta, edozein kasutan, birformulazio 'partzialak' eta 'erabatekoak' bereiztea (Alberdi & Ezeiza, 2012) komeni da baliokidetzarik ezarri baino lehen. Baina, birformulatzaille bakoitzaren mugikortasuna aztertu aurretik, ikus dezagun zein diren birformulazio-egitura baten osagaiak.

Argiagotu nahi den aurreragoko diskurtso atalari *birformulakizun* esango diogu, eta azalpen berriari *atal birformulatzaille*. Beraz, diskurtsoan lehenago –birformulakizunean– adierazitakoa argitzera edo azaltzera dator atal birformulatzaillea³².

- (25) Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du *botatzen eta errausten* –**alegia, deuseztatzen**– den zabor kopurua murriztea. [EPD, Berria]

Birformulakizuna	botatzen eta errausten
Azalpena: atal birformulatzaillea	– <u>alegia</u> , deuseztatzen–

³² Adibideetan letra etzanaren bidez bereizi dugu birformulakizuna; letra lodia bidez, atal birformulatzaillea; eta letra lodiz eta azpimarratuta eman dugu birformulatzaillea.

- (26) Jokalari txarrena. Gilbert Arenas. *Izan zen, baina ez da. Alegia, jokalari puska izan zen, baina erosotu egin da, eta kirolarekin zerikusirik ez duten gaiengatik egin da ezagun.* [EPD, Berria]

Birformulakizuna	(Jokalari txarrena. Gilbert Arenas.) Izan zen, baina ez da.
Azalpena: atal birformulatzailerak	<u>Alegia</u> , jokalari puska izan zen, baina erosotu egin da, eta kirolarekin zerikusirik ez duten gaiengatik egin da ezagun.

Azpimarratzekoa da diskurtsoaren harian atal birformulatzailerak geratzen dela indartuta edo nabarmenduta; beraz, hura hartu behar da aintzat eta ez birformulakizuna.

Bestalde, aurreko adibideetan ikus daitekeenez, birformulatzaileraren bidez kateatzen diren diskurtso atalak enuntziatu zatiak (25) nahiz enuntziatu osoak (26) izan daitezke, eta askotariko kategoria lexiko eta sintaktikoak (perpausak, izen-sintagmak, aditz-sintagmak, izenak, aditzak).

Alegia

Birformulazio partzialetan –hots, aurreragoko enuntziatu zati baten (eskuarki, aurreko sintagmaren) iruzkin edo tarteki (gazt. *inciso*) gisa gaineratzen den *alegia* «aposatua»– bi lekutan agertu ohi da. Atal birformulatzaileraren amaieran kokatu ohi da maiz, etenaldi baten ondoren –koma baten ondoren– eta sintagmari edo esaldiari bukaera emanez (27). Baina baita atal birformulatzaileraren hasieran ere (28):

- (27) -Guztiak joango gara Zaldiango jauregira, ados -esan zion Reginari bizpahiru hilabete lehenago-, baina ni Frantziara joango naiz lehendabizi, Anselmorekin ohi bezala, *ibilgailu gurpildun horietako bat* erostera: **voiture bat, alegia**. [EPD]

- (28) Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du *botatzen eta errausten* –**alegia, deuseztatzen**– den zabor kopurua murriztea. [EPD]

Birformulazio erabatekoetan, aldiz, *alegia* «aposatu gabeak» –enuntziatuen arteko lotura ezartzen duenak–, atal birformulatzailearen hasieran agertu behar du ezinbestean:

- (29) *Azken urteotako kontuetara mugatzearren, esan dezagun, eta horrela aitortu izan dute bertsolariek sarri, bertsolaritzaren inguruko jendea (bertsolariak, entzuleak eta gainerakoak) ia guztiz bat eginda zegoela frankismoaren garaian. Alegia, orain ez bezala, oso talde trinkoa osatzen zuten, ikuspegi, balio eta erreferentzia beretsuei atxikita.* Hori dela eta esan ohi dute bertsolariek «Frankoren garaian errazago -eta erosoago- zela bertsotan jardutea». -Entzuleriaren handi-txikia. Zenbat eta handiago entzuleria, txikiago homogeneitatea. [Bat-bateko bertsolaritza, J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua (Bertsozale Elkarte, 2005) Or.: 146]
- (30) Ikaratu egiten gaitu halako krudelkeriak, gupida ezak: azken finean, hurbila izan behar zitzairen mutila bi eguneko bahiketaren ondoren. *Baina ikara gaingitu eta hausnarketa-rekin jarraituz gero, egia azaltzen da, alegia, ziurtzat jo dezakegu kasu horietan ere, heriotza zentzumen guztietatik sartzen denean ere, urruntzaile bat dagoela, leungarri bat: ideologia.* Entzun eta irakurri izan diedanez, MLNV delakoaren kideek uste dute Espainia eta Euskadi elkarren etsai direla eta berak, buru-argienak eta kausari inor ez bezala emanak izateagatik, aitzindariak direla, indar espainoilen garaipena geldiarazteko kapaz diren bakarrak. [EPD, Lekuak, Bernardo Atxaga (Pamiela, 2005) Or.: 112]

Erran nahi baita

Gaurko euskaran, betetzen duen funtzioa betetzen duela (hots, birformulazio partzialetan zein erabatekoetan), atal birformulatzailearen hasieran

agertzen da *erran nahi baita* birformulatuzailea (Hegoaldeko idazleren baten adibide bakanen bat kenduta).

- (31) Elkartasun-elkarte frango kezkatuak daude, manifestaldi batzu ere muntatu dituzte, solasa hedatu baita paperik gabeko etorkinak gisa bat edo beste laguntzen dituena zigortua lita-keela eta gainerat ez guti! Gobernuak berak emana hori erakusterat eta iduriz aski garbi! Arrangura handiak agertu dira hor gaindi. Behartsuak laguntzen dituztenek ez diotela jende gaixo horieri galdetzen paperak xuxen dituzten ala ez, beharretan direla ikusiz segurtatzen diotela sokorri zerbait. *Elkartasunez, erran nahi baita jendetasunez*. [EPD-prentsa, Herria]
- (32) *Xinan, berriz ere arrastatu dute Mgr Zhiguo apezpikua, hamabigarren aldikotz, erran nahi baita usaia baduela*, baina behar da jakin badirela hango gobernu komunistak onartu apezpiku «ofizialak» eta besteak, eta hau beste hetarik izanki, hots, libertatea mugatua dutela. [EPD-prentsa, Herria]

Hau da

Gaurko euskara estandarrean, betetzen duen funtzioa betetzen duela (nahiz birformulazio partzialetan nahiz erabatekoetan), atal birformulatuzailearen hasieran agertzen da beti *hau da* birformulatuzailea.

- (33) *Esku artean dugun gaiari dagokionez, hau da, ekonometria-ri dagokionez, hainbat definizio ekar ditzakegu hona*. [EHU, Ekonometria, Alonso Antón, Aurora et al. (EHU, 2010) 1. kapitulua]
- (34) *Batetik, irakaskuntzan eta industrian gai bakoitzari buruz adituak diren pertsonak kontratatu ditugu ariketak idazteko. Hau da, arlo bakoitzean, mundu osoko onenak laguntzen ari zaizkigu kapitulu bakoitzeko oinarrizko kontzeptuak aztertzen modu berriak bilatzeko, eta irakurleak material horri buruz jaso duen informazioa zenbat ulertu duen jakiteko*. [EHU, Konputagailuen arkitektura, Hennessy, John L. et al. (EHU, 2009) Sarrera]

Hots

Gaurko euskara estandarrean, betetzen duen funtzioa betetzen duela (hots, birformulazio partzialetan zein erabatekoetan), atal birformulazaileraren hasieran agertzen da ia beti *hots* birformulazailerlea.

- (35) Kategoria kantiarren banaketaren kontua, a prioriko judizio sintetikoaren kontua eta haiek zientziaren eraikina altxatzeko orduan duten transzendentziaren kontua ez daude, ez hurrik eman ere, garbiturik. Nik neuk, nahi dut pentsatu zientzian a prioriko judizio sintetikoak komeni direlako hori *printzipio aurre- edo meta-zientifikoei dagokiela*, **hots, aurretiazkoak diren edo jada izadiaren oinarriko legeetatik harago doazen printzipioei**. [ZIO, Formen matxinatada, Jorge Wagensberg / Juan Garzia (EHU, 2007) Or.: 120]
- (36) Errusianaski hotzean egonik hango bereko ortodoxia Erromako Eliza katolikoarekin, hango Alexis II patriarkak aski ongi hartu du Walter Kasper aleman kardinalaren bisita. Gomendatu dio haatik erruso patriarkak ez dezan kardinaleak sobera erakuts katolikotasunaren han gaindi zabaltzeko gosea. *Bainan, bere partetik, Aita Sainduak erakutsi nahi ukan du egun berean Erromako Buruzagiak leku eta parte berezi bat daukala Elizaren Batasun Osoaren buruan. Hots, izan dira hotzagoak Batasun horren barneko harremanak eta ez dira dena den lokarriak hautsiak*. [EPD, Herria]

Iparraldeko tradizioan, berriz, zenbaitetan –birformulazio partzialetan iruzkin aposatua gaineratuz agertzen denean, batik bat– birformulazioaren amaieran ere agertzen da kokaturik, bai lehen (37) eta bai gaur (38-40):

- (37) *Gizon haragia nola-nahi jaten zuen [Hongriako jendeak], gizon odola edaten. Osoki basa zen, hots!* [OEH, Zerb IxtS 103.]
- (38) Txetxenian *Ramzan Kadyrov dute beren lehen ministro berria, aitzineko lehen ministro hilaren semea hots*. 29 urte ditu eta erran behar da Wladimir Putin errusoaren aldekoa dela eta hala izana bere gudariekin, beldur haundiak heda-

tu ere baitzitu denetan Errusiari sumetitzen ez zireneri [EPD, Herria, HERRIAK ETA JENDEAK, SINADURARIK GABE, (2006-03-09, 2. or.)]

- (39) Lekutu behar zuen, baina kurios-pinterdia zenez, sasiaren atzealdean eta lokatzean iltzatu zen, geldo. Mutu. Izutua. Begimentzeko baimenik nehoiz edukiko ez zukeen zerbaiteen lekuko. Bekatuaren minean ihalozka. *Hala baitziren ipurdiak, gerriak, pottottak, pittilinak eta izter-azpiak. Eki arraioetara erakusten ez ziren gorputz zatiak hots.* [EPD, Zerueta erresuma, Itxaro Borda (Susa, 2005) Or.: 25]
- (40) Alabaina, Albuquerquetik Flagstaffera zihoan bide handitik bazterturiko lege eta jainkorik gabeko cow-boy deabruak edo berrehun kilometro eskasetan zegoen Mexikoko mugatik etorri gosaio pikarraiek ardiak ebasteko raid delakoak antolatzen zituzten. Orduan, bospasei gizon armatu bakarraren kontrako borroka horretan, erasoak irauten zueno, *artzainak bazekien hobe zuela arroila sakon baten gerizan geratzea. Hilarena egitea, hots.* Tiroak, heiagorak eta zaldien lauhazka azantzak jabaldu arte. Ortzaizean altxaturiko errauts zutoina zen atake horien iragarlea. Gero zaldien aztalkaden harramantza. Eta azkenik, astoaren aztoramena. Zakurraren zaunka-intziariak, herioari. Une horietan artzainak ez zezakeen laguntzarik eska: polizia tribal posturik hurbilena Shiprock herrian zegoen, erokeria bat. [EPD, Zerueta erresuma, Itxaro Borda (Susa, 2005) Or.: 37]

Posizioari dagokionez, beraz, birformulazio *partzialetan* ez dago erabateko baliokidetasunik *alegiaren* eta beste hiru birformulatzailer esplikatioen artean, *alegia* baita egungo euskara estandarrean halako mugikortasuna duen partikula nagusi bakarra. *Hau da eta erran nahi baita* birformulatzailerak, aldiz, ezinbestean birformulazioaren hasieran kokatzen dira; eta antzeko joera nabari da *hots* birformulatzaileraren kasuan, atal birformulatzaileraren hasieran kokatzen baita gehienetan egungo estandarrean.³³

³³ Iparraldeko testuetan, berriz, zenbaitetan bukaeran ere azaltzen da *hots*, bai lehen eta bai orain.

Birformulazio *erabatekoetan*, aldiz, badirudi baliokidetasuna dagoela lau birformulatzailerik artean mugikortasunik ezari dagokionez: laurak kokatzen dira birformulazioaren hasieran.

2.4. Joskera

Joskerari dagokionez, *erran nahi baita* esapidearen berezitasun sintaktiko bat baino ez dut azpimarratuko. Izan ere, nahiz *erran nahi baita* nahikoa lexicalkizatuta dagoen, enuntziatuak lotzen dituenean (birformulazio *erabatekoetan*, *alegia*), ia beti eskatzen du *-(e)la* menderagailua atal birformulatzailerik: *alegia*, perpaus osagarria gobernatzen du ia beti. Hots, *alegia*, *hots* eta *hau da* birformulatzailerik ez bezala, funtzio sintaktiko argia betetzen du, atal birformulatzailerik predikatu nagusia baita.

- (41) *Apirilaren lehenaren antzekoa da Hegoaldeko inuxentent eguna, **erran nahi baita** edozein gezur saka daitekeela abenduaren 28-an*, hala nola egiten den Iparraldean apirilaren 1-ean. [EPD-prentsa, Herria]
- (42) Den gutieneko zalantzarik ez balitz ere bestalde arazo honetan, ez litzateke gauza berria teologiako eztabaidak antolatzea dudazko ez diren puntu zenbaiti buruz: Hala nola eztabaidak izaten diren Jainko Gizon Eginari eta fedezko beste artikulu batzuei buruz. Teologiako eztabaidak alabaina ez dira beti deliberatiiboak. *Askotan demostratiiboak dira; **erran nahi baita**, egiaren erakusteko antolatzen direla eta ez egiaren frogatzeko*. [PKC, Indio aurkitu berriak, Francisco de Vitoria / Piarres Xarriton (1993) Or.: 55]

Egia da beste birformulatzailerik esplikatiiboek ere (*alegia*, *hau da*, *hots*) zenbaitetan perpaus osagarria duen enuntziatu bat sartzen dutela, baina ez ezinbestean eta ez edozein testuingurutan. Ikus ditzagun kasu tipikoak.

Perpaus osagarri bat (*-(e)la*) birformulatzailerik denean, badirudi ezinbestean erabili behar dela menderagailu berbera (*-(e)la*) birformulazioan. Halakoean ez dago jakiterik birformulatzailerik eraginarengatik gertatzen den

menderakuntza ala aurreko perpausa (birformulakizuna) ere menderatua delako.

- (43) Odolak hemoglobinarekin konbinaturik darama oxigenoa eta oxigeno hori hemoglobinatik askatzea ez da erraza; odoleko oxigeno-tentsioa asko jaitsi behar da horretarako. Baina oxigeno-tentsioa asko jaisten bada, ez da izango umekiaren beharrak asetzeko nahikoa. *Kontuan hartu behar da, gainera, oxigenoa umekiaren odolera heltzeko, plazentaren epitelioan zehar barreiatu behar dela, **hau da, oxigenoak nolabaiteko «hesia» zeharkatu behar duela.*** [ZIO, Anima-lien aferak, J.I. Pérez Iglesias / M.B. Urrutia (EHU, 2011) Or.: 172]
- (44) Hain zuzen bazuten europearrek Express deitu ikergailu bat Marterat igorria eta huna handik berri interesgarriak etorri berri direla guretako ainitz balio dutenak jakintza mailean. Darmstad agentziak du horren berri eman: lehen aldikotz jakin da hari esker, ura badela hormatua edo karroindua Marteren gainean, alde batean segurik. Haren azalean bide da ur hori, nahiz oraino ez dakiten zenbat, ez-eta ere sasoinka den hormatua, baititu Marzok ere bere gisako uda-neguak. *Bestalde, hango mendien berri ere badaki orai gizonak, gero-ta gehiago, **hots, hemengoak baino hiruetan goragoak direla bana-beste: 27 kilometra gora haundiena, Everestek hiruetan gutiago dituelarik*** [EPD, HERRIAK ETA GIZONAK, SINADURARIK GABE, «HERRIAK ETA GIZONAK» (2004-01-29, 2. or.)]

Beste batzuetan, perpaus konpletibo baten bidez zehazten edo birformulatzen da birformulakizuneko sintagma bat (*Zigor Kodearen 410. artikulua dioena*): halakoetan, birformulakizuneko predikatuaren gainean (*gogorarazi du*) eraikitzen da perpaus osagarria (*zigortu behar direla*).

- (45) Ildo horretan, *Zigor Kodearen 410. artikulua dioena* gogorazi du Fiskaltzak; **alegia, ebazpen judizialak betetzeari uko egiten diotenak zigortu behar direla.** [EPD-prentsa, Berria]

Zenbaitetan, *-(e)la* menderagailua duen perpaus osagarri baten bidez birformulatzen da zehaztapenen beharra duen birformulakizuneko izen bat (*bertsioa*):

- (46) «Kartzelan egon beharko luke, orduan. Munduko lekurik arriskutsuena da paraje hau udan», esan zuen poliziak. Juanek *bere bertsioa* eman nahi izan zion, **alegia Baffinek, uhar-teko lehen esploratzailea zen partez, segur aski intrusio-tzat jo zuela gure etorrera, eta gure ametsen barruan sartu eta heriotzarantz gidatzen ahalegindu zela**. Zorionez, Juanek ingelesez gaizki egiten zuenez, poliziek ez zioten uler-tu. [Lekuak, Bernardo Atxaga (Pamiela, 2005) Or.: 173]

Beste testuinguru batzuetan badirudi ageriko arrazoi sintaktikorik gabe azaltzen dela *-(e)la* menderagailua atal birformulazailerik: ondorengo tes-tuen antzekoetan, esaterako, pentsa liteke isilduta dagoela perpaus osaga-rria gobernatzen duen pentsamenduzko aditza; nolabaiteko ondorio subjek-tiboa adierazten du halakoetan.

- (47) *Naroa Agirrek pista estaliko pertika jauziko bere marka ondu zuen, atzo, Anoetako Belodromoan. Espainiako marka ondu zuela, alegia*. [EPD, Berria]
- (48) Begiekin jotzea ahotan hartu dugularik, eta gizonen gauzak astintzen ari garen honetan, gogora datorkit begiekin (eta, beraz, buruarekin) jotze horren kontrako osagarritzat har daitekeen bestelako operazio bat, eta hura da «pitoarekin pentsatzea» esaten dena, zein baita gure sexuari besteak maiz aski egotzi ohi dion bekatu edo akatsetarik bat. Nik berriz, gure gixonkasta ohoratzen eta bere goien graduraino goititzen duen ezaugarritzat jotzen dut pitoarekin pentsatze hori, eta *akatsik nonbait egotekotan, motz gelditzean legoke; hau da, ez garela geu ere pentsatzeko era jator horri behar adinbat atxikiak*. [EPD, Gaur ere ez du hiltze-ko eguraldirik egingo, Iñaki Segurola (Alberdania, 2005) Or.: 91]
- (49) Gauza da ohatzerat eraman behar izaten genuela hiruzpa-lauren artean, jostetak edota liskarrak alde baterat utziz, gu

beti geurean ibiliz ere jainko eta jainkosen istorioak txunditurik uzten baikintuen, hein batean bedere, ez baikenion sobera konprenitzen. Pentsalari sakon batentzat geneukan guztiok osaba idazle-filosofoa. *Istoriolari izari berezia hartzen genion, halako igarkizun kutsua; **hots**, **historia zela***. Hain zen jakintsu... eta umoretsu. Guztiok erran dut, baina gure amak otto Laurenz funtsgabe hordi bat zela zioen beti, ganorabako bat. Eta amak ezagutzen zuen bere neba, naski. [Denboraren muga, Jose Angel Irigaray (Pamiela, 2005) Or.: 14]

Beraz, funtzio pragmatiko nagusiari dagokionez *alegia*, *hots* eta *hau da birformulatzailerik kidekoa bada ere*, sintaxiaren aldetik oso bestelako jokamoldea du *erran nahi baitak*. Izan ere, *erran nahi baita* esapidearen kasuan gramatikalizazioa ez da erabat burutu: bera da atal birformulatzailerik predikatu nagusia; perpaus osagarria gobernatzen duten predikatu horietakoa, hain zuzen.

Bestela, antzeko ezaugarri sintaktikoak partekatzen dituzte, oro har, lau birformulatzailerik esplikatiiboek: birformulazio partzialetan zein erabatekoetan erabiltzen dira laurak; birformulazio partzialetan, gehienetan halako paralelismo funtzional bat –'baliokidetasun funtzionala' (ikus Suñer, 1999)– egon ohi da birformulakizunaren eta birformulazioaren artean, ezinbestekoa ez bada ere (Alberdi, 2014); eta, orobat, luzera eta maila guztietako kategoria lexikoak eta sintagmak txertatzen dituzte laurak birformulazio partzialetan.

2.5. Erabilera dialogikoa (heterobirformulazioa). Beregaintasun diskurtsiboa

Hiztunak berak jar dezake abian birformulazio-prozesua (Garcés, 2008: 69; Garcés, 2009: 17-18): 'autobirformulazio' deritzo prozesu horri (50). Edo beste hiztun edo solaskide batek eraginda gerta daiteke birformulazioa: B solaskideak A solaskidearen adierazpena birformulatzen du, eta orduan 'heterobirformulazioaz' mintzatu ohi da (51).

- (50) Duela bi urte, 2007ko otsailean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa «transgenikorik gabeko eremu» izendatu zituen Jaur-laritzak; *alegia*, pertsona edo aberentzako elikagai izan zitezkeen landaketa transgenikoen aurka agertu zen. [EPD, Berria]
- (51) Laukizuzena, gero; bi informazio behar dira hura zehazteko. Gero, erronboa, paralelogramoa, trapezioa. Eta, hara, ia-ia ahaztu zaizkit, haiek izanik ugarienak inondik ere: nolanhikoak! Ezer nabarmenik ez dutenak. -*Alegia*—sartu zen tartean Jonathan—, matematikan lanerako sekula erabiltzen ez direnak. [ZIO, Loroaren teorema, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2005) Or.: 156]

Oker ez banago, lau birformulatzaile esplikatiibo nagusiak (*alegia, erran nahi baita, hots, hau da*) balia daitezke heterobirformulazio bat gauzatzeko: aski da elkarrizketaren harian beste solaskide batek hitza hartzea eta aurreko esatariaren enuntziatua birformulatzea. Beraz, erabilera monologikoari edo dialogikoari bagagozkio, ez dut uste funtsezko desberdintasunik dagoenik aztergai ditugun lau birformulatzaileen artean.

Ez dirudi, ordea, lau birformulatzaileek beregaintasun diskurtsiboa dutenik. Haietako bi (*alegia, erran nahi baita*), elkarrizketa batean ager daitezke txanda bat eta enuntziatu bat osatuz (beregaintasun diskurtsiboa). Elkarrizketa baten harian galderazko enuntziatu beregain bat osatzeko gauza dira *alegia* eta *erran nahi baita*: solaskideari azalpen zehatzago bat edo birformulazio argigarri bat eskatzeko erabiltzen dira, esaterako, testu hauetan:

- (52) -Nik, berriz —sartu zen tartean Jonathan, goxo-goxo—, ez dut uste zuk esan bezala gertatu denik kontua. Zuk ez duzu ezertxoren erantzukizunik. Burua mugitu zuen Ruche jaunak, tristuraz. -Dena antolatuta zeukan zure adiskideak —jarraitu zuen Jonathanek—. Bidali dizun gutuna haren testamentua da. Bere heriotza aurreikusi, eta gauzatu egin du noski. -**Alegia?** [ZIO, Loroaren teorema, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2005) Or.: 104]

- (53) -oihukatu zuen Léak, sutan. - Horixe bera uste nuen nik ere. Gero, gogoeta egin, eta hortxe aurkitu dut irtenbidea... beste liburu batean. Neurketa une jakin batean eginez moldatu behar izango zuen Talesek: eguzki-izpiak onarriaren aldearekiko zehazki zut zirenean! **-Alegia? -galdetu zuen Léak.** -Ai ene! Utzidazu gogoratzen. Oinarriaren aldearekiko zut; horrek esan nahi du alderdi ezkutua alde baten erdiaren berdina dela. Hala, piramidearen garaiera itzalaren luzera gehi alde baten erdia da -bukatu zuen lasterka batean Ruche jaunak. - Tira ba, ez dut tutik ere ulertu -esan zuen Léak. [ZIO, Loroaren teorema, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2005) Or.: 50]
- (54) -Ulertzen duzu... nire langileek nahi izan dutelarik greba egin gehiago pagatuak izateko gisan, behar izan ditut kanporatu... Ondorioz, lantegiaren erdia bota eta, bakea ukan dut! -Zenbat pagatzen dituzu zure langileak? -eskatu zion bilo luzeak zituen mutikoak. -*Hemengo legeak aipatzen duen minimoa baino gehiago!* -**Erran nahi baita?** -150 pesos egunean. 3 euro inguru. Minimoa baino % 25 gehiago! Gehiago ezin dut! Zinez! Lan sariak igotzen banitu lantegia itxi beharko genuke! Mikelek ez zion ezer erran baina harritzen zen ikustea zer segurtasunarekin gazte horrek zituen langile familia osoak miseriara bota! [EPD, Skyroom, Ramuntxo Etxeberri (Elkar, 2004) Or.: 212]

Ez dut horrelako adibiderik –hots, birformulatzailerik beregaintasun diskurtsiboa erakusten duen adibiderik– aurkitu gaur egungo euskara estandarrean (EUDIMA corpusean, behintzat) *hau da eta hots* birformulatzailerik kasuan.

2.6. Balio pragmatikoak

Oro har, aztergai ditugun lau birformulatzailerik balio pragmatiko oinarriko berbera partekatzen dute: birformulazio esplikatibo bat bideratzeko erabiltzen dira; hots, aurreragoko diskurtso atal batean adierazitakoa azaltzera, argitzera, osatzera edo zehaztera datorren diskurtso atal bati bide egi-

teko erabiltzen dira³⁴. Hona adibide batzuk, balio birformulatuzaile esplikatiibo horren adierazgarri:

- (55) Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du *botatzen eta errausten* –**alegia, deuseztatzen**– den zabor kopurua murriztea. [EPD, Berria]
- (56) *Apirilaren lehenaren antzekoa da Hegoaldeko inuxenten eguna, **erran nahi baita** edozein gezur saka daitekeela abenduaren 28-an*, hala nola egiten den Iparraldean apirilaren 1-ean. [EPD-prentsa, Herria]
- (57) «Katilinarenak» nobelak misteriozko istorioa du kontagai, baina, *intrigazko nobela honetan askatu behar den misterioa ez da ohikoa. **Hau da, nobela honetan misterioa edo intriga ez dago gertakari batzuk argitzearekin loturik.*** [EPD-prentsa, Berria]
- (58) «Badakigu ez dugula ezer aldatuko, ezer irauliko, baina literaturaz hitz egiteko gogoia genuen eta horren inguruan elkartu gara aldizkaria egiteko», azaldu du Ibon Egañak, sustatuzaileetako batek. Aldizkariak ez du maiztasun jakinik izango, eta *blog baten ereduari jarraitzen dio. **Hots, argitaratu ahala mezuak ikusgai dituen sareko gunee bat da.*** [EPD-prentsa, Berria]

Ildo beretik, oinarrizko balio pragmatiko nagusi horren gauzatzetat har ditzakegun balio diskurtsibo «eratorri» hauek ere erkide dira lau birformulatuzaileentzat (ikus Garcés, 2008):

a. Identifikazio- eta zehaztapen-funtzioa: birformulakizunari erreferentzia jakin bat esleitzea:

³⁴ Alberdi (2014) lanean esaterako, honela azaldu dut *alegia*: «Birformulazio esplikatiibo bat bideratzeko erabiltzen da *alegia*: hots, aurreragoko diskurtso atal batean adierazitakoa azaltzera, argitzera, osatzera edo zehaztera datorren diskurtso atal bati bide egiteko. Hitz horretaz baliatzen da esataria esan berri duena modu argiagoko batez birformulatzeko: haren bidez esatariak ohartarazten edo iragartzen dio hartzaileari lehenago adierazi duenari buruzko azalpen bat datorrela *alegia* hitzak txertatzen duen diskurtso atalean.»

- (59) *Sortu zenetik -XIX. mende-hasieratik, alegia*, biologiak ez dio utzi egituretan barrentzeari eta funtzioetan sakontzeari. [Sagua, eulia, eta gizakia, François Jacob / Juan Garzia (EHU, 2004) Or.: 11]
- (60) Gaurko gomita, beraz, Daniel Landart, Donoztirin sortua eta Mugerren bizi. Gau on, Daniel. -Bai zuri ere. Gau on entzuleak. -Bizkorrian? -Biziki ontsa, milesker. -Ez zira denbora txarraren beldur izan hunaraino jiteko? -Batere. Biziki aise egin dut bidaia... *Etzetik hunaraino, erran nahi baita Mugerretik Donibane Garazira*. [EPD, Ez da musik, Menane Oxandabaratx (Elkar, 2006) Or.: 7]
- (61) *Baina bideratutako dirua Europako batez bestekora hurbiltzen joateko* eskatu zuten; hau da, Barne Produktu Gordina-ren %3 ingurura hurbiltzeko. [EPD-prentsa, Berria]
- (62) Hortaz, azken hori ere jaioa izanez, horrek horrela infinituraino segituko du: baina hastapenean infinituaren existentzia, era honetan ere, ezinezkoa dela ezarria dute, haien XI. baiespenean erakutsi dugunez. Era beretik, *aitarik gabeko lehenbiziko banakoarenganaino* hel bazintez ere, hots, Adamenganaino, hortik oraino galdera letorke: «Nondik jaio zen Adam hori?». Eta zerorrek, adibidez, erantzun bazenez: «hautsetik» nahitaez honako galdera egin lezake: «baina nondik sortu da hauts hori? [Alderraien gidaria, Mose ben Maimon / Xabier Kintana (Pentsamenduaren klasi-koak, 2006) Or.: 221]

b. Birformulakizunaren esanahia edo zentzua argitzea:

- (63) Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du *botatzen eta errausten -alegia, deuseztatzen*- den zabor kopurua murriztea. [EPD]
- (64) Monclarrekin kontuak egiten zituen: arpilatzaileak 4.500 izan beharrean 5.000 izateak ez zuen hiriko biztanleen zorrigaitza makurragotuko. Herrixka, berriz, zutik zegoen eta bizirik hango biztanleak. -Zoazte Jaunaren bakean. Gu ailegatu orduko aspaldi itzalia zen *egiazko borroka, erran*

nahi baita, gizonen gizon, buruz buru eta berdinez berdin egiten dena. Noraino izan zen hura odoltsua ez dakit. Zubi gotortuan, ate inguruan eta karrketan ez zen soldadu hilik falta. Etsaietarik franko, eta guretarik gehiago. [EPD, Mailuaren odola, Aingeru Epaltza (Elkar, 2006) Or.: 274]

- (65) Eta Arco, batez ere, *azoka dela kontuan hartuta*, **hau da, salerosketa gunea**, ondorio ekonomikoak izango direla ez du inork dudan jartzen.
- (66) Arrazoimenak, aldiz, egitate bera, nahimenaren gertakari gisa pentsatuko du. (*Zuzenean nahimena bera ez dugu inon hautematen, baizik haren ondorioak; hots, efektu bat da, zuzenean hauteman eta interpretatzen duguna kausa haren obratzat*, hura zergatiko libre legez ulertuz edo ezinbestekotasun naturalaren menpegabekotzat). Kausalitate naturala, batetik, eta kausalitate librea, bestetik, munduan eragintza pentsatzeko bi modu da. [EPD, Volksgeist - Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora, Joxe Azurmendi (Elkar, 2007.) Or.: 21]

c. Birformulakizunaren esanahia zabaltzea: definizioa

- (67) Nukleo kritiko horretan aurkitutako gelaxka unitateen kopurua nukleo kritikoaren eta gelaxka unitateen bolumenaren ratioa da. Urreak aurpegietan zentratutako kristal-egitura kubikoa duenez (eta gelaxka unitate kubikoa), gelaxka unitatearen bolumena a^3 da -non a sare-parametroa baita (**alegia, gelaxka unitatearen ertz-luzera**) -. a ren balioa 0,413 nm da, problemaren enuntziatuan aipatzen den moduan. [EHU, Materialen zientzia eta ingeniariaritz, Callister, Jr., William D. et al. (EHU, 2011) 10. kapitulua]
- (68) Bazutela ere kanpainetan *detxima*, **erran nahi baita orotarik hamargarren partea**: ogia pikatzen zenean, hamar espaldetarik bat apezarentzat; ogia jotzen zenean, hamar gaitzuretarik bat apezarentzat. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Or.: 243]

- (69) Inflazioaren kontrakoa da *deflazioa*, **hau da, prezioek behera egitea**. [EPD-prentsa, Berria]
- (70) *Sintaxiak*, **hots, hitzen ordena bereizteko gaitasunak**, beste animalia guztien gainetik jartzen ditu orka arruntak. [EITB dokumentalak: «Animaliak gure antzeko»]

d. Birformulakizunaren esanahia laburbiltzea: izendapena

- (71) -Guztiak joango gara Zaldiango jauregira, ados -esan zion Reginari bizpahiru hilabete lehenago-, baina ni Frantziara joango naiz lehendabizi, Anselmorekin ohi bezala, *ibilgaihu gurpildun horietako bat* erostera: **voiture bat, alegia**. [EPD]
- (72) Erran ditake beraz sahetz bide horretarik lortu zuela bere helburua: Ameriketako euskaldunek apezak izatea. Behin baino gehiagotan entzun dute beneditar zenbaitek nola zaldiz ibiltzen ziren hango fraideak Pampa zabalean zeuden Euskaldunen ebanjelizatzen. Horietarik batek zien erran Euskaladunei haien bekatu nagusia zela, *azeri gorriak izatea*, **erran nahi baita, bekaizkeria**. (...) [EPD, Janpierre Arbelbide, Xipri Arbelbide (Egan, 2005) Or.: 94]
- (73) Hondakinek zabor izateari utz diezaiokete *gai organikoak naturaren ziklora itzultzen badira*, **hau da, konpostatzearen bidez**. [EPD-prentsa, Berria]
- (74) *Gizakiok entzuten ez ditugun maiztasun baxuko soinuak*, **hots, infrasoinuak** nabaritzeko gai dira. [EITB dokumentalak: «Animaliak gure antzeko»]

Are gehiago, kidetasunak azalpenezko birformulazioetatik harantzago doaz. Izan ere, testuingurua lagun, azalpenezkoaz bestelako balio batzuk ere –prototipikoak ez direnak– bereganatzen dituzte lau birformulazailerik: *batik bat*, ondorioa (subjektiboa, sarri) eta dedukzioa; baina baita bestelakoak ere (zuzenketa, laburpena eta abar). Bada, aztergai ditugun lau birformulazailerik erabiltzen dira batzuetan balio kontestual lerratu horiekin.

- (75) -Kontu handiz, bai horixe! Nonbaitik hasi behar, hala ere -baieztatu zuen Léak -, ezta, Ruche jauna? Izan ere, esaldi hau aurkitu dut, Polibio deritzon batena: «*Guztiaren bide*

erdia da hasiera». **Alegia, gaizki hasiz gero, okerra luzaroko!** [ZIO, Loroaren teorema, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2005) Or.: 164]

- (76) Heien jokoa litake *Charia delakoa hedatzea herri osoan, **erran nahi baita islamisten lege dorpeenaren pean ezartzea herria eta jendea.*** [EPD-prentsa, Herria]
- (77) Oihartzabal, EILASeko Pedro Matxo, LABeko Roberto Tornero, CCOOko Javier Nogales eta EHIGeko Ana Izagirrek eredu hau proposatu dute: ikastetxeak berak bere hizkuntz plana egitea, ikasle guztiek 16 urte dituztenean euskara eta gaztelania menperatzeko; eta baita ingelese ere. Hau da, ikastetxe bakoitzak erabakiko du ikasgai bakoitza zein hizkuntzatan eman, bere ingurunearen arabera. Jakina, betiere Hezkuntza Sailak jarritako gutxienekoak beteta. «Oraingo ikasleak biharko helduak dira, eta biharko gizakiak gu baino gehiago mugituko dira. *Gu asko irtetzen gara kanpora, baina gerokoak gehiago; **hau da, hiru hizkuntza behintzat ondo menperatu beharko dituzte beren bizitza duintasunez aurrera atera nahi badute.*** [EPD-prentsa, Berria]
- (78) Esperanto mintzaira beharko ote dute egun batez Europa egiten duten 25 herri horietakoek? Gauza bat bada ororentzat argi-argia dena, denak lehertuko dituela emeki emeki ingles mintzairak hola segituz. Alta ez litake hori ere egiazko Europa. *Hortaz, gauza jakina da orai Europan sartu berri diren hamarrek ez dutela beren mintzairan agertu ahal izan gain hartan beren dozierik. **Hots, izanen da oraino zer asma denen egiazko errespetu batentzat*** [EPD-prentsa, Herria, HERRIAK ETA GIZONAK, SINADURARIK GABE, «HERRIAK ETA GIZONAK» (2004-05-27, 2. or.)]

Kidetasunak kidetasun, *alegiak* badu beste balio bat, ustez gainerakoetatik bereizten duena: ahozko hizkeran, batez ere, ondoren datorren azalpen bati bide emateko erabiltzen da (4). Gehienetan agerian daude testuetan birformulazioaren bi atalak (birformulakizuna eta atal birformulatzailea). Hala ere, ahozko hizkeran batez ere, *alegia* sarritan erabiltzen da azaldu nahi

denari sarrera emateko, hots, adierazi ez den formulazio inplizitu baten birformulazioari bide egiteko (ikus Martín & Portolés, 1999: 4122).³⁵ Hona adibide adierazgarri batzuk:

- (79) -Ta, zer esan dizu? - Esan dit, **alegia**, abek gaztetxoak, txikitxoak dirala oraindik eta urruti aietara iritsi gabeak dirala. Ib. 44. [OEH]
- (80) BEATRIZ.- Baita hiri ere. Esan zidatek, bai, gaur lehenago itekoa hintzela, baina ez ziate sinestu. Izan ere, ez hidan ezer esan eta...
MIKEL.- (Esaldiak taxuz lotu ezinik) Izan ere... **Alegia**... Batzuetan, gauzak hala gertatzen ditun. Eta, gertatzen direnean, datozen bezala hartu behar ditun. Eta kito! Ez dun besterik gertatzen. [Goenkale, 1295 atala, Mamu eta damu Sek.: 14]

Laburbilduta, balio semantiko-pragmatikoari bagazozkio, ez da erraza lau birformulatzailerik artean muga garbiak ezartzea. Izan ere, lau birformulatzailerik bat datoz, oro har, balio pragmatiko nagusietan. Erabilera markatuetan, aldiz, agerian geratzen da haien arteko baliokidetasunik eza.

2.7. Informazio-egitura

Pragmatikari loturiko argibideak –birformulatzailerik esplikatiboan kasuan, aurreko enuntziatua berrinterpretatzeko jarraibideak– ez ezik, informazio-egiturarekin zerikusia duten jarraibideak ere ematen dizkigute birformulatzailerik: mintzagaiaren jarraipena eta aldaketa (Portolés, 2007).

Ondorengo bi adibideetan (Portolés, 2007: 122-123), galdera berari (*¿Qué tiene? // Zer du?*) erantzuten zaio atal birformulatzailerik (*Tiene la tensión alta. // Tentsio altua du.*); hots, topiko edo mintzagai bera iruzkintzen da atal birformulatzailerik.

³⁵ Alde horretatik, zentzu hertsian, zalantzan jar liteke halakoetan *alegia* partikularen birformulatzaileriketasuna.

- (81) a. Es hipertenso. *O sea*, tiene la tensión alta.
 b. Es hipertenso. *Esto es*, tiene la tensión alta.
- (82) a. Hipertentsoa da. *Alegia*, tentsio altua du.
 b. Hipertentsoa da. *Hau da*, tentsio altua du.

¿QUÉ TIENE? // ZER DU? [Galdera]

a. Es hipertenso. // Hipertentsoa da.

b. Tiene la tensión alta. // Tentsio altua du.
--

Ondorengo adibideetan, berriz, bigarren segmentuan (atal birformulatzailean) ez da iruzkintzen lehen segmentuko (birformulakizuneko) mintzagai bera (*¿Qué tiene? # No le pongas demasiada sal en la comida. // Zer du? # Hau da, gatz gutxi jarri behar diozu janarietan*).

- (83) a. Es hipertenso. *O sea*, que no le pongas demasiada sal en la comida.
 b. # Es hipertenso. *Esto es*, que no le pongas demasiada sal en la comida.
- (84) a. Hipertentsoa da. *Alegia*, gatz gutxi jarri behar diozu janarietan.
 b. Hipertentsoa da. *Hau da*, gatz gutxi jarri behar diozu janarietan.

¿QUÉ TIENE? // ZER DU? [Galdera]

a. Es hipertenso.

a. Hipertentsoa da.

b. No le pongas demasiada sal en la comida.

b. Gatz gutxi jarri behar diozu janarietan.

Aurreko adibideetatik zera ondorioztatzen da gaztelaniari dagokionez: *o sea* birformulatzailearen bidez mintzagai bera (81a) iruzkindu daiteke edota mintzagai berria sartu (83a); *esto es* birformulatzailea³⁶, berriz, mintzagai bera iruzkintzeko espezializatuta dago (81b/83b).

³⁶ Gauza bera gertatzen da *a saber* birformulatzailearekin: alegia, topiko bera iruzkintzeko espezializatuta dago.

Euskaraz, berriz, ez dirudi gauza bera esan daitekeenik *hau da* birformulatzailerari buruz. Alegia, nahiz eta formaren aldetik gaztelaniazko *esto es* esapidearen kidekoa den, eta nahiz eta OEHK «esto es, es decir, a saber» ordainak esleitzen dizkion (17), ez du ematen *hau da* birformulatzailerik nahitaez mintzagai bera iruzkindu behar duenik; hots, ez dirudi *hau da* esapidea mintzagai bera iruzkintzeko espezializatuta dagoenik.

Goragoko (84b) eta (77) adibideen modukoek erakusten digutenez, *hau daren* bidez sartutako atal birformulatzailerik ez dute beti errepikatzen birformulakizuneko mintzagaia. Eta horretan badirudi bat datozela (ikus 75-78) aztergai ditugun lau birformulatzailerik esplikatiiboak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*). Beraz, informazio-egiturari dagokionez, laurak ere nahi-ko pareko edo baliokide direla ematen du: sarri askotan mintzagai bera iruzkintzeko erabiltzen dira eta halako paralelismo funtzionala ageri da birformulakizunaren eta atal birformulatzailerik artean, baina ez da hori inola ere eskakizun ezinbestekoa.

Esanak esan, argi dago informazio-egituraren aldetik ez direla inola ere baliokide honako birformulatzailerik hauek, nahiz eta OEHK halakotzat ematen dituen: *hau da # esto es, a saber*. Izan ere, gaztelaniazko birformulatzailerik mintzagai bera iruzkintzeko espezializatuta daude, eta, *hau da*, berriz, ez. Hots, *hau da* ez da *esto es* birformulatzailerik baliokide petoa, ezta *a saber* birformulatzailerik ere; ezpada ordain gisa ematen den hirukotearen (OEK: *esto es, es decir, a saber*; Elhuyar: *esto es, es decir; o sea*) nolabaiteko baliokidea.

Ondorioak

Teorian, DM baten definizioak, ondo bereizi behar luke delako markatzailea gainerakoetatik, ondo hautaturiko deskriptore eta bereizgarriak direla medio. Praktikan, ordea, hizpide ditugun birformulatzailerik kasuan (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) oso zaila da haien artean bereizkuntza pragmatiko orokorrak ezartzea.

Alde horretatik, birformulatzailerik balio semantiko-pragmatiko nagusiarik dagokionez ez dirudi oro har okerrak direnik euskal hiztegietan eta hiztegi

elebidunetan ezartzen diren baliokidetzak, esapideen kategoriari buruz ageri diren inkoherentziak gorabehera. Hala ere, jakina denez, nekez aurkitzen da hizkuntza batean erabateko sinonimiarik edota erabateko baliokidetasunik. Eta, hain zuzen ere, horixe gertatzen da aztergai ditugun lau birformulatzailerik kasuan, beste parametro xeheago batzuk kontuan hartzen baditugu.

Hala, birformulazio erabatekoetan badirudi baliokidetasuna dagoela lau birformulatzailerik artean mugikortasunik ezari dagokionez: laurak kokatzen dira birformulazioaren hasieran. Baina birformulazio partzialetan, aldiz, ez dago erabateko baliokidetasunik *alegiaren* eta beste hiru birformulatzailerik esplikatiiboaren artean, *alegia* baita egungo euskara estandarrean halako mugikortasuna duen partikula nagusi bakarra.

Sintaxiaren aldetik oso bestelako jokamoldea du *erran nahi baitak*, beste birformulatzailerik aldean. Izan ere, *erran nahi baita* esapidearen kasuan gramatikalizazioa ez da erabat burutu: bera da atal birformulatzailerik predikatua nagusia, ezinbestean perpaus osagarria gobernatzen duena.

Bestalde, ez dirudi lau birformulatzailerik beregaintasun diskurtsiboa dutenik. Haietako bi (*alegia, erran nahi baita*), elkarrizketa batean ager daitezke txanda bat eta enunziatu bat osatuz (beregaintasun diskurtsiboa). Baina ez dut halako adibiderik ikusi EUDIMA corpusean, *hau da* eta *hots* birformulatzailerik kasuan.

Lau birformulatzailerik bat datoz, oro har, balio pragmatiko nagusietan. Erabilera markatuetan, aldiz, agerian geratzen da haien arteko baliokidetasunik eza. Izan ere, *alegiak* badu balio bereizgarri bat: ahozko hizkeran, batez ere, ondoren datorren azalpen bati –azaldu nahi denari– bide emateko erabiltzen da (4).

Informazio-egituraren aldetik ez dira inola ere baliokide honako birformulatzailerik hauek, nahiz eta OEHK halakotzat ematen dituen: *hau da # esto es, a saber*. Izan ere, gaztelaniazko birformulatzailerik mintzagai bera iruzkintzeko espezializatuta daude, eta, *hau da*, berriz, ez. Hots, *hau da* ez da *esto es* birformulatzailerik baliokidea, ezta *a saber* birformulatzailerik ere; ezpada ordain gisa ematen den hirukotearen (OEK: *esto es, es decir, a saber*; Elhuyar: *esto es, es decir; o sea*) nolabaiteko baliokidea.

Laburbilduta, aztertu ditugun lau birformulatzailerikoa esplikatiboak baliokide dira balio pragmatiko nagusiei dagokienez, baina, hala ere, ez dirudi laurak testuinguru guztietan erabat trukagarriak direnik.

Aipaturiko bibliografia

ALBERDI, X., 2011, «Erran nahi baita birformulatzailerikoa esplikatiboa gaurko euskarari», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* (ASJU), XLV (45), 2, 277-304.

——— (arg.), 2014, *Birformulazioa eta birformulatzailerikoa euskaraz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

ALBERDI, X.; EZEIZA, J., 2012, «Birformulazioa eta birformulatzailerikoa esplikatiboak hizkera juridikoan». *Euskera*, 57, 3, 607-757.

BRIZ, A.; PONS, S.; PORTOLÉS, J. (dirs.), 2008, *Diccionario de partículas discursivas del español (DPDE)*. [Internet: <http://dpde.es>]

EUSKALTZAINDIA, 1990, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

FUENTES, C., 2009, *Diccionario de conectores y operadores del español*. Madrid: Arco Libros.

GARCÉS, M^a P., 2008, *La organización del discurso: marcadores de ordenación y de reformulación*. Madrid: Iberoamericana-Vervuert.

———, 2009, *La reformulación del discurso en español en comparación con otras lenguas (catalán, francés, italiano, inglés, alemán e islandés)*. Madrid: Universidad Carlos III de Madrid. Boletín Oficial del Estado.

LARA, L. F., 2003, «El sentido de la definición lexicográfica», in Martín Zorraquino. M^a. A.; Aliaga Jimenez. J.L. (eds.): *La lexicografía hispánica ante el siglo XXI. Balance y perspectivas*. Zaragoza: Gobierno de Aragón / Institución Fernando el Católico. 99-113.

LLOPIS, A., 2006, «Aplicación de la teoría de Rey-Debove a las definiciones lexicográficas de los marcadores discursivos», in Villayandre, M. (arg.): *Actas del XXXV Simposio Internacional de la Sociedad Española de Lingüística*. León: Universidad de León. 486-503. [<http://www3.unileon.es/dp/dfh/SEL/actas/Llopis.pdf>]

LOUREDA, Ó.; ACÍN, E. (koord.), 2010, *Los estudios sobre marcadores del discurso en español, hoy*. Madrid: Arco/ Libros.

MARTÍ, M., 2011, «Los conectores discursivos (entre los otros marcadores discursivos y los otros conectores)», *Linred, Lingüística en la red*, IX, 05-11-2011, 1-37, [<http://www.linred.es/numero9.html>], Universidad de A Coruña, [http://www.linred.es/numero9_articulo_8.html]

MARTÍN, M^a A., 2010, «Las partículas discursivas y los diccionarios de partículas discursivas (con referencia especial a *desde luego/sin duda* y *por lo visto/al parecer*)», in Bernal, E., Torner, S., DeCesaris, J. (eds.): *Estudis de lexicografia 2003-2005*. Barcelona: IULA, Documenta Universitaria.

MARTÍN, M^a A.; PORTOLÉS, J., 1999, «Los marcadores del discurso», in Bosque, I. y Demonte, V. (arg.): *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa. Vol. III, 4051-4213.

PORTO, J.A., 2002, *Manual de técnica lexicográfica*. Madrid: Arco/Libros.

PORTOLÉS, J., 2007, *Los marcadores del discurso*. Barcelona: Ariel. 2. argitaraldi osatua.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (RAE), Asociación de Academias de la Lengua Española, 2010, *Nueva gramática de la lengua española, Sintaxis II*. Madrid: Espasa Libros.

REY-DEBOVE, J., 1971, *Étude linguistique et sémiotique des dictionnaires français contemporains*. The Hague-Paris: Mouton.

SECO, M., 1978, «Problemas formales de la definición lexicográfica», in *Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach (con motivo de sus XXV años de docencia en la Universidad de Oviedo)*, II. Oviedo: Universidad de Oviedo. 217-239.

SANMARTÍN, J., 2010, «La dificultad de definir en un diccionario de partículas», in Castillo, M^a A.; García Platero, J.M.: *La lexicografía en su dimensión teórica*. Málaga: Universidad de Málaga, Estudio y Ensayos. 561-585.

SÚÑER, A., 1999, «La aposición y otras relaciones de predicación en el sintagma nominal», in Bosque, I.; Demonte, V. (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa. Vol. III, 523-564.

VÁZQUEZ, N., 2011, «El tratamiento lexicográfico de los marcadores del discurso» *Linred, Lingüística en la red*, 02-05-2011, 1-20. [http://www.linred.es/numero9_monografico1_Art5.html]. In Cestero Mancera, A. M^a; Martí Sánchez, M.

(koord.): *I Jornadas de lengua y comunicación: marcadores discursivos* [http://www.linred.es/numero9_monografico1.html] > *Anexo monográfico* [<http://www.linred.es/numero9.html>]. Universidad de A Coruña.

Hiztegiak

AZKUE, R.M^a de, 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbao, Paris: P. Geuthner. [La Gran Enciclopedia Vasca-k, Bilbon 1969an berrargitaratua]

ELHUYAR, 2014, *Elhuyar euskara-espainiera hiztegia*. [http://hiztegiak.elhuyar.org/eu_es/]

EUSKALTZAINDIA, 2012, *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Andoain: Euskaltzaindia, Elkar, Elhuyar. [laburdura: EusH]

———, 2014, *Hiztegi Batua*. [<http://www.euskaltzaindia.net/hiztegitatua/>] [laburdura: HB]

LHANDE, P., 1926, *Dictionnaire basque-français*. G. Beauchesne.

MITXELENA, K., 1987-2005, *Diccionario general vasco. Orotariko euskal hiztegia*. Bilbao: Desclée De Brouwer. [<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>] [Kontsulta-data: 2013][laburdura: OEH]

SARASOLA, I., 2007, *Euskal hiztegia*. Donostia: Elkar. [laburdura: EH] Internet: *Hautal-lanerako Euskal Hiztegia*. [<http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/sarasola/sarasola.apl>]